

ORBELEK ORMAIZTIARREI

Dakizuen bezala, datorren hilabetean, Udal Hauteskundeak ospatuko dira. Hori dela eta ezinbestekoa ikusi dugu, ORBEL, Ormaiztegiko Bizilagunak Elkarlanean, udal taldearen etorkizunari buruz berri ematea.

ORBEL, 2007an eratu zen, proposatzen genuen proiektuak, toki bat zeukala uste genuelako eta kalean entzuten ziren kexei irtenbide bat emateko aukera ikusten genuelako. Herritar askok beraien babesaren eman zeniguten eta ordutik gaurdaino herria hobetzeko asmoz lanean jardun dugu.

Zortzi urte luze eta gogor pasa dira eta gure ustez, orduko egoera eta gaurkoa ez dira berdinak, zorionez. Ez dugu ikusten garai hartan bezain garbi, gaur egun, ORBEL taldeak Ormaiztegin udal mailan tokirik duenik. 2007an ez ginen sekula betiereko proiektu bat izateko asmoarekin sortu, beraz, 2015eko udal hauteskundeetara ez aurkezteko erabakia hartu dugu. Eta bide batez, talde bezala desegin eta prozesu elektoral honetan aktiboki inola ere ez parte hartzea erabaki dugu.

Ez da gure asmoa bi legegintzaldi hauetako lorpenak aipatzen hastea. Herritarrek emandako mandatuari erantzun nahirik, zortzi urtez genuen guztia eman dugu, beti ere, ilusio handiz, lanean gogor jardun gara eta izugarri ikasi dugu. Bide horretan erabaki zailak hartu behar izan ditugu, baina noski... bagenekien non sartzen ginen! Eta normala den bezala, erabakiak hartze horretan batzuetan asmatuko genuen... eta jakin badakigu beste batzuetan aldiz, ez dugula asmatu. Hala ere, gauza bat oso garbi eduki dugu: gure erabaki guztiak herritik haratagoko "politika haundia" alde batera utziz hartu ditugula. Herria eta herriko gaiak izan dira gure eragin bakarrak.

Herritar talde anonimo batek ORBELi hasiera eman genionean, herrian zegoen egoera politiko eta sozial gatazkatsuari irtenbide bat emateko helburuarekin izan zen. Horrez gain, beste kezka batzuek ere mugi arazi gintuzten, hala nola, herri mailan zegoen dinamismo/ partehartze maila baxuak eta hirigintzaren inguruan zeuden makroproiektuek.

Udalean eta gobernuan egon garen urteetan zehar gai hauek izan dira gure lehentasunak. Gure ustez lehenengo bi egitasmoetan emaitza positiboak lortu ditugu, lehenengoan bereziki. Izan ere, gaur egun herri mailan dagoen giro politikoak ez du zorionez 2007an eta aurreko urteetan bizi zen krispazio mailarekin zerikusirik. Eta horretan ORBElek parte aktibo garrantzitsua izan dela uste dugu.

Herriko dinamismo eta partehartze maila ere hobetu direla uste dugu. Esfortzu handiak egin ditugu udaletxe mailatik herrian dinamismo gehiago egoteko eta gure balorazioan behintzat hori ere lortu da, azken legegintzaldian gehien bat.

Baina ez ditugu gure hasierako helburu guztiak bete. Hirigintzan Uherkalderako zegoen makroproiektua gelditzea lortu bagenuen ere, etxebizitza eskaintza berri bat lortzeko uste eta nahi baino denbora gehiago eman zigun. Gure eskuetan zegoen guztia egin arren, ez dugu lortu udaleko proiektu garrantzitsuenetako bat zena, burututa ikusterik. Tramitazio izugarri korapilatsu baten eta hirigintzako krisi gogorraren ondorioz denboran atzeratu egin da, tamalez. Urte hauetan, lehentasun osoa eman zaio gai honi eta udaleko baliabide guztiak erabili dira lehenbailehen martxan jartzeko eta zorionez gaur da eguna, epe motz batean, Antoneneko gunea eraikitzen hasteko garaia iritsi dena. Alde batetik, etorkizun oparo bat ikusten dugu, urte askotarako etxe bizitzak eta herriko gunerik egokienean, bermaturik egongo baitira, baina bestaldekik, urte hauetan etxe bizitzarik ez egiteak herritik kanpora etorkizuna bilatzera eramane dituen gazteak buruan dauzkagu eta umiltasun osoz barkamena eskatzen diegu.

Eta bidean hartu behar izan ditugun erabaki guztien artetik, kontziente gara bereziki batek desengainua sortu zuela herritar askorengan: Hondakinen kudeaketan, atez-ate sistemaren aldeko gure hautuak zurrumbilo handia zuen gure herrian baina gaur egun zorionez egoera gatazkatsu hura baretu da eta talde guztien artean adostu genuen bilketa sistema berriarekin emaitza oso onak lortzen ari gara herritar guztion elkarlanari esker.

Beste gai bat ere aipatu nahiko genuke. Udal talde guztiok urtean zehar diru asignazio bat jasotzen dugu gure funtzionamendurako. ORBEL talde bezala desegitea erabaki dugunez, talde bezala dugun soberakin horri irteera bat eman nahi genioke. Herriaren aurrekontuetatik datorren dirua izanik, egokiena herriari bueltatzea dela iruditzen zaigu Ormaiztegiren beharretara bideratua izan dadin. Diru kopuru hori (6604,81 €), 2015-eko udal aurrekontuen parte izatera bideratuko dugu eta herritarrak aukeratutako gobernu berriaren esku geratuko da bere erabilpena, herriaren beharretarako hain zuzen ere. Garrantzitsua da guretzat kontu guzti hauek gardentasunez azaltzea.

ORBELek kaleratzen duen lehen gutuna da hau, lehena eta azkena. Sortu ginenetik, gure filosofia, elkarren aurkako gutunak ateratzearen aurkakoa izan da beti. Herritarren artean gatazka sortzea besterik ez zuela ekartzen pentsatu izan dugu beti. Gure ustez, udal ordezkariak daukagun egunetik, gatazkak eztabaidatzeko gunea udala da. Bere batzorde eta plenoak, hain zuzen ere. Talde bezala eta, kasu batzuetan baita maila pertsonalean ere, buzoietan banatutako idatzi bidez erasotuak izan gara ORBELeko zinegotziak urte hauetan zehar, baina ez dugu sekula etxeetara gutunak bidaliz erreazionatu. Gure erantzuna beti udal organoetan eman izan dugu. Azken gutun hau, talde bezala desagertzearen inguruan azalpen bat eman behar genuela uste izan dugulako kaleratu dugu soilik. Beraz, agur gutun bat da azken finean.

Eta agur gutuna izanik, ez dugu amaitu nahi, zortzi urte hauetan udaletik Ormaiztegi aurrera ateratzeko inplikatu diren guztiei eskerrak eman gabe.

Esker berezia udal langile eta teknikari guztiei. Esker mila, profesionaltasunetik haratago dagoen inplikazioa eduki duzuela oso garbi daukagu. Plazer handi bat izan da zuekin urte hauetan lana egitea.

Eskerrak, baita ere, zortzi urte hauetan gurekin batera udal ordezkari izan zareten zinegotzi guztiei, guztion ekarpena ezinbestekoa izan baita gauzak aurrera ateratzeko eta bereziki, udal gobernuan bidelagun izan zaituztegun EAE-ANV eta BILDUko udal karguei.

Eta nola ez, eskerrik beroenak Ormaiztegiko herritar guztiei, zuek gabe ez bailegoke ez herririk eta ez herrigintzarik.

Denbora honetan gauzak ahalik ondoen egiten saiatu gara. **Gaizki eginak barkatu eta ongi eginak gogoan hartu!**

Etorkizunean, ORBEL ez da talde bezala herrigintzan izango, baina edozertan esku bat botatzeko prest egongo gara bertan izan garen pertsona guztiak ... eta animo, datozen lau urteetan udaletxean lanean arituko diren zinegotziei.

AUPA ORMAIZTI

ORBEL
ormaiztegiko
bizilagunak
elkarlanean